

## ESKOLA - JANTOKIA: FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Zuzeneko kudeaketako eskola-jantokiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2000ko martxoaren 22an emandako Aginduak ezartzen duenaren arabera eta ikastetxearen bitartez funtzionatuko dute.

### **JANTOKIKO TXANDAK:**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutakoak, beti ere jantokiak duen kapazitatearen arabera.

-Gure kasuan txanda bakarra dugu, goizeko klaseak amaitutakoan hasiko dena, eta DBHko ikasleak kurtsoka sartuko dira, 1. mailakoekin hasita 4. mailakoekin bukatuko dena.

-Salbuespen gisa eta arrazoi akademikoak medio, kurtsoko batetik bestera aldatu egin daitezkeenak, bigarren eta azken txanda bat egin daiteke talde (ez kurtsoko) zehatz batzuentzat. Kasu hau arratsaldean klasea dagoenean baino ez da emango, hau da, astelehen, astearte eta ostegunetan. Ordu bietan edo gehien jota ordu biak eta hamarreen hasiko da.

### **FINANTZAKETA:**

a) Kurtsoko bakoitzean bazkaltiarren kuota funtzionamendurako Zirkularrak jartzen dituenak izango dira, 2012 / 2013 ikasturtean:

-Ikaslea, ohiko jankidea: 4,60 €

-Ikaslea, ohiko jankidea garraiorako eskubidearekin: 3,30 €

-Ikaslea, ohiko ez den jankidea : 5,20 €

b) Bazkaltiarrek derrigorrez ordainduko dituzte kuota guztiak. **Jarraiko kuota bi** ez ordaintzeak, bekariora izan zein ez, jantokiko plaza galtzea ekarriko du dena ordaindu arte. Era berean, jantokia erabili ahal izateko, aurreko kurtsoko kuota guztiak ordainduta izan beharko dira.

Jarraikoak ez diren **hiru kuota** ordaindu barik izan ezker, bekariora izan zein ez, jantokiko plaza galduko du kurtsoko horretarako.

### **ASISTENTZIA FALTAK:**

- Egunero kontrolatuko da jantokiko asistentzia horretarako prestatutako zerrenden bidez.
- Familiak zuritu egin beharko dituzte asistentzia faltak, bai itzultzeko eskubidedunak (2 aste jarraian eta abisua 48 ordu lehenago emanda) eta baita hutsegite puntualak ere, telefonoz zein idazki bidez.
- Jantokiko arduradunak astero adieraziko dizkio dagokion tutoreari, bere ikasleen hutsegiteak.
- Jantokiko arduradunak beharrezkotzat jotzen duen guztietan komunikatuko dio familiari hutsegiteen berri eta bereziki jarraiko 5 egun direnean, bekariora izan zein ez.

### **JANTOKIKO BAZKALTIARRAK PATIOAN:**

- a) Jantokia erabiltzen duten DBHko ikasleak eskola esparru barruan egongo dira. Horrela izan ezik, konbibentziaren aurkako faltatzat hartuko da. Ikasle batek puntualki irten behar duenerako, familiak inprimaki ofiziala beteko du eguna eta ordua adieraziz.
- b) San Pedroko sarreran egon ahal izango dira, baina ez eskailera, pasilu edota geletan.
- c) Une zehatzetan eta nagusi baten ardurapean joan ahal izango dira geletara.
- d) Jantoki orduan behe solairuko komunak baino ez dituzte erabiliko.
- e) Jantoki orduan, eta zentru bakarra izan arren, DBHko ikasleak ezin izango dira sartu Santa Marian ikastetxeak edota irakasleren batek antolatutako ekintza ez bada.
- f) Lauaxetan , beraientzat antolatutako ludotekara joan ahal izango dira edota sarrerara Idazkaritzan tramiteren bat egin behar badute.
- g) San Pedron ikasteko gela bat izango dute.
- h) Baimenik izan ezik, alboan ditugun udal instalazioak ezin izango dira erabili. Horrela izan ezker, esparrutik kanpo egongo dira.

### **SAKELEKOA ETA BESTE TRESNA BATZUK:**

- a) Jantoki barruan itzalita eta gordeta egongo dira.
- b) Eskola Kontseiluak alde zuzenetik onartu gabeko grabazioen bat egin ezker, konbibentziaren aurkako falta larritzat hartuko da.

### **JANTOKIKOA EZ DEN JANARIA:**

- a) Guztiz debekatuta dago jantokira kanpoko janaria edota edaria sartzea.
- b) Era berean, debekatuta dago jantokitik janaria, edaria edota bertako tresnak ateratzea.

### **JANTOKI BARRUAN:**

- a) Ikasleek konbibentzia lasaia erraztuko dute.
  - Bakoitzak bere mahaiaren garbitasuna eta txukuntasuna zainduko du.
  - Ez dute "jaurtiketarik" egingo.
  - Arduradunen esanak beteko dituzte.
  - Mahaia, tresnak eta ingurua zainduko dituzte.
- b) Eskuak garbituta sartuko dira jantokira.
- c) Jantokira sartzeko, txanoak, kapelak, biserak... kendu egingo dira.
- d) Konbibentziaren aurkako 3 falta larri edo oso larri 1 izateak, jantokiko plaza galtzea ekarri ahal izango du.



IES MUNGIA BHI

2012 / 2013 ikasturtea



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### **JANTOKIKO BAJAK:**

- a) Baja izan aurreko hilabetean jakinaraziko da. Bestela, hilabete osoa kobratuko da nahiz eta etorri ez.
- b) Lauaxetako idazkaritzan, baja inprimakia beteko da.
- c) Era berean, edozein aldaketa jantokia erabiliko den egunekin lotuta, aurreko hilabetean adieraziko da.